

ZARR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

218n. zenbakia
orrilla 1997



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



OÑATIBIA'TAR MANU
(+1993-03-12)
(EUSKERAZAINAKAZ
EZKERRETIK IRUGARRENA)

MUNGIA EDER ZINKUN

Begira nabil zure inguru
zorakortasun artean,
ederragorik ez dot ikusten
nire begien aurrean;
urdiña goian orleia bean
baratz ederren tartean
zerua dago dizdizkaria
mendi lerdenen gaiñean.

Ixil-ixilik dago erria
neguaren babesean,
iparraldetik egoaldera
aize ozkiritz aidean;
urriñaldetik egazka dator
zinkun zuria goien
toki eder bat nun ete dagon
Euskalerriko lurrean.

Mungia eder eukeratu dau
begiratzeko lurrera,
gorantza doa tone puntara
bazter onak ikustera;
egun da erdi igaro ditu
alboetara begira
bigarren gabez denporaleaz
jun da beste lur batera.

Gainik gain nabil zure inguru
Euskalerriko lorea,
mendi ederrez inguraturik
daukazu izaerea;
zeru-goi urdin dizdiratsua
dozu lagun onberea
argi gozoaz bedeinkatuten
erritarren arimea.

Seme argiak izan dituzu
zure lurren babesean
izar gorrien antzera dizdiz
jakituriaz batian;
erri bizia goratu eben
gogozko ekiñaldian,
gizon jatorrak ederrak dira
norbere erri maitian.

Mentxaka eta Zameza jauna
Elordui'regaz batera
iru izar on agertu ziran
Matxiñen erri aldera;
loreak lore euren ederrez
baratzan jaiotzen dira
euskaldun gizon jatorren toki
Mungia eder zu zara.

Paulin

TXOMIN

ZUBIRI'tar IÑAKI'ren ELEBARRIA

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK
ARGITARATUA

BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN

ONATIBIA'TAR MANU'REN OROIPENEZ

AGUR, MANU

Biziak ezustekoak emoten dauz. Batzuk, onak izaten dira, beste batzuk, ostera, txarrak eta illunak.

Azken onein artean sartu bear dot nik OÑATIBIA TAR MANU'ren eriotza, ezelango ezpai bank.

MANU euskaldun jatorren sendi bateko kidea genduan. Dunixi eta Jon here anaiak euskerearen aldezle zintzo eta asperbakoak izan doguz, guztiok dakigun bezela. Eta, MANU'ri buruz beste orrenbeste esan leike.

Nik, EUSKERAZAINTZA -k Deba'n illero egiten dauzan batzarretako batean ben,' ezagutzeko aukera euki neban. Eta lenengo egunetik berak euskereari dautsan maitasun aundia argi ta garbi egiaztatu aal izan neban.

EUSKERAZAINTZA'ko idazkari bezela, egundoko alegiñak egin izan dauz euskeraren aide, obeto esateko, erri-euskeraren aide. Eta nabarmendu gura neuke azken au, gaur egun euskera errikoiak bizi dauan egoera illuna gogoan arturik.

Azkenez, euskaltzale bezela, nire esker on eta txalo beroa euskerearen mesedean zin lan oparoa egindako gizon aundi oneri. Laster arte, lagun.

MALAXETXE BARRIA TAR JON.

Aiskide ona! Agurtu dozu
zuk maite zenduan lurra
mendi ta zelaiz, egiz, izan zan
euskaldun kabi ederra;
zugatz ta lorez, ondo, jantzirik
ikusten gendun ibarra
gorantza, beti, deitzen euskuan
lur onetatik zerura.

Zure gogo giza-lege lez
jatona izan zan errian,
gizon ta kristau bizi izan ziñan
Euskalerriko lurrian:
lenen-lenengo aitatu geinke
gizatasuna lanian
anai-bizitza otseinduteko
gizontasun ederrian

Danez goitikan zure gogo
bizirik egon fedean,
gizonarentzat ederrena da
itxaropena goiean;
erri on batek laguntzen eutzun
sinismenaren bidean,
gaur zure inguru aurkitzen gara
Aita onaren aurrean.

* **

Bertso barriak egoki dira
gizon jatorren omenez.
Era ortako euskaldun on bat
zu izan ziñan zorionez;
jaiotzatikan artu zenduan
lei on argitasunez,
eder guztia opaldu zeuntsan
Euzkadi ri maitasunez.

Buru argi ta biotz Ieiala
artu zenduzan sortzetik
baita zentzuna egizko bidez
zuzentasunez beterik;
ez ziñan egon geldi iñoiz be
lanari erantzun bank
indar guztiak jalki zenduzen
otsein zintzo biurturik.

Berez berezko doia zendukan
euzko izkuntzaren aldez
Euskal Erriko iturri on
bizitu nai zendun ederrez;
Aitor egoan zuri hegira
gogoz leiatzen indarrez
euskal izkuntza zabaldu zedin
Euskalerrian adorez.

Izkuntz artean ederrik ba-da
jakintsu eta garbia,
on da lurrez euskal semiak
sortu eben izketia:
lur maite onek merezi eban
zure doaizko semia
gaur zure adi, gogoz daukazu
Euskerazaintza guztia.

PAULIN

ONATIBIA'TAR MANU LANKIDEA

Azkenengo gure ZER onen zenbakian iragarri geuntsen, samintasunez, gure irakurleai Oñatibia'tar Manu adiskide ta lankidearen eriotza. Zillegi bekit gaur óizon on, zur eta langille izan dan eskal-zale onen gomutaki batzuk emen agertzea.

Zurtz eginda itzi nindun Kortajarena'tar Andoni EUSKERAZAIN-TZA'ren Idazkariak gure Manu'ren eriotzearen

barria emon eustanean. Nok uste izango eban, ia larogei urtekoa izan an-en, gure adiskide onen eriotzea alan, uste barik eta batbatean, etorriko zala! Alako utsunea itzi dausku Euskerearen Erri-Akademian! Donostia'n il jakun, 1997-03-12'an.

Urrengo egunean batu giñan Zarautz'en bere senideak eta adiskideak illeta ospatzeko. Eroapen egokigaz egin eban berba ospatzaille izan zan Iñaki bere anaiak. Beste gauza askoren artean auxe gogoratu euskun. "Manu'ren buruan asmakizun bat beteten edo alboratzen zanerako, beti egoan beste bat gertu". Asmamen aundikoa ta ekintzaille sendoa, gogotsua, zan, izan be, gure Manu.

Bizkai'ko euskerea maite

Ba-dira giputzak, gure Xabier Peña'ren antzera, Bizkai'ko euskerea benetan maite dabenak eta orreitariko bat gendun Manu.

Euskerea maite ebalako, euskerearen lau euskalkiak, edo berak esaten eban lez, tau euskerak maite ebazan Manu'k, baiña maitasun bereizi bat eutsan bizkaiereari eta orretarako zio bi agertzen ebazan: Euskalki ederra dala eta, gaur baztertuta dagoan ezkerro, galtzeko arriskuan dagoala, batez be batuaren jokabide okerragaitik.

Erriko euskerea maite eban Manu'k eta ondo ekian euskeraz egiten daben erdiak baizkaitarrak zirana. Orreagaitik, geuri, bizkaitarrai, bultz egiten euskun geure euskalkiaren aide ekin dagi-gun.

BERGARA'ko batzarra (1978)

Euskera batua sortu zanetik amargarren urtea zala-ta, Bergara'n eratu eban Euskaltzaindiak batzar bat eta gure Manu'k ara joateko dei beroa egin euskun, antxe batuaren okerbideak agertzeko eta bide egokiago bat eskintzeko.

Esau eta egin. Antxe alkartu giñan egun gurtietan eta Bazkalorduan LASA ostatu nagusian egiten genduzan geure alkar-izke-



LENDAKARIAGAZ ALKAR-IZKETAN EZKERREAN LENENGOA MAN U

tzak. Ez zan beste biderik ikusten, erriak darabilen euskerea, benetako euskera bakarra zaindu nai izan ezkerro, beste Akademi bat sortzea baiño. Bide au agertu eban Latiegi'tar Bixente adiskideak. Erabagita geratu zan EUSKERAZAINTZA sortzea. Manu'ren alegiñak ez eban aurrera-biderik izan eta gogotsu artu genduan lan-bide barria.

KARDABERAZ'tik EUSKERAZAINTZA'ra

Tolosa'n egin gendun beti lez, Bergara'ko batzar orretatik urrengoa izan zan KARDABERAZ'tarren batzarra. Antxe eskatu eban Lekuona'tar Manuel Euskaltzain-buru izanak Euskaltzaindiari salakuntza-agiri bat egin bear jakola. Ori ontzat artu zan eta Latiegi'tar Bixente eta Manu'ren anaia zan Oñatibia'tar Dunixi arduratu ziran Ian on egiteko. Epe labur baten ondoren agertu zan guztiok ezagutzen dogun liburu ederra ta irakurgarria.

Antxe onartu zan, Kardaberaz'tarren bideari jarraitzeko, EUSKERAZAINTZA EUSKEREAREN ERRI-AKADEMIA sortzea. Naikoa epe laburrean bete zan ekintza ori.

EUSKERAZAINTZA'n izan doguzan langille sutsuen artean bat, sutsuenetarikoa, Manu izan dogu.

SASKI-NASKI ALDIZKARIA

Manu'ren anaia izan zan YON'ek asmau eban Saski-Naski gaur dan antzeko aldizkari bat sortzea, baiña berak ez eban izan astirik asmo ori beteteko. You anaia it zanean, Manu'k artu eban aldizkari ori bideratzeko zeregiña eta bete be ondo bete eban zeregin ori. Bera joan jaku baiña aldizkariak aurrera jarraitzen dau.

Idaz-lanak billatzen arduratsu, irarkolara eroan eta irar-utsak zuzentzen, bere-bereak ziran idaz-lan asko idazten, diru-arazoak bideratzen, aldizkaria zabaltzen... zenbat Ian beretzat!.

Bilbao'ko Euskal-astean

Urtero eratzen dogu Bilbao'n azillaren azken-inguruan, Eus-

tak. An agertu jakun geure mai-ra egun baten Javier Quintana, beta eta gu galtzaille agertzen garala esanez. Bera atxe geiago nai ebazalako eta gu atxea kentzea eskatzen gendualako.

Seudo, argi eta zeatz egin eban berba Manu'k, beti nai izaten eban lez, alkar-tzeko bide bat eskatuz eta eskiñiz, baiña zori txarrez ez egoan an olako girorik, alperrekoak izan ziran gure eskin-

kal-Aste bat eta urte baten Manu'ri egin geuntson dei itzaldi bat egiteko.

Lanerako ezetik esaten ez ekiana zan Manu eta baietza emon eta etorri be egin zan.

Oso egokia izan zan itzaldia. ZER onertan agertu gendun.

Itzaldi orretan asmo egoki bat agertu eban. Esan dogu oso asmatzaillea zala. Auxe izan zan: Bilbao'n Arana'tar Sabin'eri irudi bat ezarri bear jakola eta asmo on beteteko EUSKERAZA-LEAK ALKARTEA'k arm bear leukela ardurea. Arazoa ez dago aiztuta, baiña oraindiño hete barik bai.

Iruña'n Erri-Aurreko Ikastetxe Nagusian

Iruña'ko Ikastetxe Nagusian euskerearen ardurea daben ikasle batzuk dei egin euskuen Ikastetxe aretara joan eta guk aide batetik eta Euskaltzaindikoak bestetik, jente-aurreko alkar-izketa bat egiteko.

Manu'k bizi-bizi arto eban aukera on eta bera ta biok Asier Etxaburua'gaz batera joatea erabagi gendun.

Euskaltzainak be urreratu ziran beste iru eta alkar-izketa gogoangarria izan gendun. Zerrendan artu zan itzaldia eta ZER'en agertu be bai.

Zarautz'era neure berebillean eroan neban eta pozik agertzen zan erri-euskerearen aldeko eritxia egokiro azaldu zalako.

EUSKALTZAINDIA'ren arduradunakaz

Iñoz entzun dogu gure Manu here eritxietan estua zala eta here bidetik ez doanen batek iñoz esan dau "bunker" zala. Baiña beragandik urrean ibilli garanok ondo dakigu ori ez dala orrelan.

Esan dogu Bergara'ra alkar-izketarako gogo onagaz joan zala.

Beste betzuk ziran an estuak.

Eta bide orretatik jarraitu eban berak. Orregaitik gertatu eban Euskaltzaindia'gaz alkar-izketa bat.

Orretarako joan giñan bera ta biok erakunde onek Bilbao'n daukan here etxe ederrera eta an alkartu giñan iru euskaltzainegaz, euren artean bat Euskaltzainburua.

Alkar-izketa naikoa luzea izan ondoren erantzuna emongo euskuela esan eben, baiña, erantzun ori ez zata etorten-eta, esku-titza egin utsen. Dana alperrik izan zan, alkar-izketarako gogorik ez egon-eta.

Jaurlaritzaren Lendakariagaz batzarra

EUSKERAZAINTZA'k artzen dauzan diru-laguntzak oso urriak dirala-ta. Lendakariagaz alkar-izketa egiteko bidea askiñi euskun Manu'k hein baten.

Onartu gendun eskintza ori eta gogo beroaz artu ginduzan Lendakariak Ajuria-enea'n, Mari Karmen Garmendia be bertan zala.

Gore eskariak gogoz entzun ebazan Lendakariak, baiña diru-laguntza lortzea ez da ain erreza. Len tez, urritasun aundian jarraitzen dogu.

Deustu'ko ikastetxe Nagusian

Bizkai'ko euskerearen arazo lan-ia aztertzeke Mai-Inguru bat eta alkar-izketa eratu ziran bein baten Dustu'ko Ikastetxe Nagusian.

Gore Manu'k olako aukera bat ezin eikean galdu, eta ara joan giñan.

Ondo arto ginduezan eta guk agertu genduzan eritxiak txalotak izan ziran.

Une baten Alfontso Irigoien zanari (G.B.) auxe esan neutsan: "Zu Bizkaitarra zara, emen darabilgun gala bizkaiera, eta zergaitik batuz itz egiten dozu?"

Onen erantzun baragarria au izan zan: "Nik erran dui. Zuk ulertu duzu".

Europa'ko Iaguntza.

Manu beti ebillen asmatzen eta egun baten beste au bururatu jakon: Zergaitik ez dogu eskatzen Europa'ra erri txikien izkuntzai eskintzen dautsen diru-laguntza? Esan eta egin. Eskatu eban, egitarau bat eskiñi irudibidez ikastegietan euskerea irakasteko eta Iortu be bai. Lan orretan sartuta egoan eriotzea eldu jakoneán.

Bizkai'ko euskerearen laguntzarako iraspenna

Leixuago esan dogu Iaguntza-arloan zelako urritasunean aukitzen ganen. Arazo onek asko arduratzen eban Manu eta orregaitik bururatu jakon iraspenn edo "fundaziño" bat sortzea. Bizkai'ko euskereari lenengo, eta geno beste euskera gurtiai laguntzea zan iraspenn orren elburua. Bide orretan urrats asko emon ebazan eta iraspenna sortuta dagoala dirudi.

Orretarako beste lagun batzuk bear ebazan, eta ez euskalza-leak oeste barik, eta lagun orreik be aurkitu ebazan. Laster asiko da lanean here amets ona izan dan ekintza ori.

EUSKERAZAINTZA aldizkarira esaldi jatorrak

Erri-euskerea eban maite Manu'k eta erri-gizon eta emakume asko ziran here adiskideak. Orregaitik guztiñi eskatzen euskun eirian entzuten doguzan esaldi jatorrak, euskeraz errezak eta erderaz esateko gatxak, diranak batzeko.

Beste batzuk be orretan egin dogu zerbait, baiña berak batzar guztietara ekarten ebazan olako esaldiak ugari.

Erri-euskerea magnetofoi-bidez artzeko ekintzak be, bete ziran eta gauza ederrak bato genduzan erritarren agotik.

Euskerearen "unibertso"ra

Leitza'ko semea dan Zabaleta gizon gaztea etorri jaun hein Bilbao'n EUSKERAZALEAK ALKARTE'ra "Euskerearen Unibertsoa" deritxon eta euskerearen aldekoak diran indar guztiak batzea elburu dauan erakunde baten buruz berba egiteko. Asmo ona zan eta nik Manu'ri agertu neutson. Laster asi zan gore adiskide onen burua lanean eta an agertu zan Donosti'ko Miramar'en Batzar aundi aretan here lankideren bategaz.

Eleizkide Zarautz'en

Kristiñau zintzoa gendun Manu, zintzoa ta arduratua.

Beiztegi'tar Jon il zanean onen illetara joan nitzan Zarautz'era eta antxe ikusi neban mano irakurQuaia irakurten.

Geno jakin neban Zarautz'eko Frantziskotarren parroki orretan Artzain-Lan-Batzordean kideko zala.


Bide orretan burutu eban Irugan-en Mundiari laguntzeko ekin-bide bat eta arlo orretan be ekin egiten ebala entzun dot, baiña ez dakit onetan jakingarri geiagorik.

Betiko atsedena izan dagiala

Ainbat Ian eta buruauste agertu dogu ferro oneitan. Ez dina gurtiak, ez urrik be, baiña gore begien aurretik betiko joan jakun sasoi onetan ez jaku geratzen besterik beretzat betiko atsedena eskatu eta here antzera Ian egiten jarraituko dogula esatea baiño. Agur Manu.

OLAZAR'tar Martin'ek

EUSKALDUN-ERROMATAR ALDIA (II) ERROMATAR ARLOSAK



PANTEON: *Jaiuko gu_tien el =a.*


Araba'n

Erromatarrek gauza asko egin zituzten onak eta oien artean auxen da bat: menperatu zituzten erri gustietako sinsisleriak eta jainkoak onartzea. Onartu bakarrik ez, baita eurentzako eliza nagusi bat jasotzea Erroma erdian. Antxen dago oraindik zutik Vittorio Emanuele eta Corso kaleen artean, izen-buru onekin: M. AGRIPA LF COS TERTIUM FECIT. Bola erdi baten antza du eta izena PANTEON du (JAINKO GUZTIAK). Kristauekin ausi zuten arau ori.

—Zer egin zuten ba kristauekin?

– Erlijio guztien aurkakoak ziralata, eriotzaraiño eraso zieten; iru eunki luzeetan eraso ere, 313'garren urtean Constantino Aundia enperadorea kristau egin zan arte. Erromatarrek euren eta grekotarren Panteoiak alkartu zituzten, biekin bat egiñik. Ortik sortu zan, jainkoen izeneri buruzko naaske-ta, jainko bakoizak bi izen zituelako, bata grekoz eta bestea latíñez... Beste aldetik, berriz, ainbeste jainko eta jainkosa, ainbeste aien seme-alaba jainko txiki bihurturik... Oiek naikoak ez zirala, besteenak artu ondoren, naaste-borrasteko Panteoia sortu zan.

Erronzatar arlosak ugari



– Eta, jainko oiek gure artean ere ba al daude?

– Araba'n badaude batzuek eta auek dira: Laguardia'n Matribus Useis (Tokian tokiko, iduriz ooretutako, Ama Zaindariai); Ninfae, (uren sorgiñei), Araia'ko erreka baten iturburuan eta Cabriana'n; Laguardia'n Lares Quatrivi (Bide-gurutzetako Zaindariai), Lar izenak Etxe-zaindariai esan nai du, baña beste izen batekin datorrenean (Quatrivi) onek erakusten du Lar'en esan-naia eta Quatrivi bide-gurutzeak dira... Laguardia'n Lares Viales (Bideetako Laguntzalleak); Iruña'n Tutela, (Zaindariai)...

– Eta Dei Manes?

– Dei Manes (Etxeko Zaindariai): Laguardia (Ama Donearen ermitatxo oiñarrietatik aterea); Nabaja'n kamiño batean; Armentia'n kalostrako baratzan; Gabariñ'en San Martin ermitan eta erretore-etxean; Iruña'ko aztarnategi batean eta Errioxa'ko San Milian de la Cogolla'n...

– Eta, bertako jainkorik ez al dago?

– Angostina'n bi: Genio Suestatiense eta Baelisto; Suesatio Angostina bera da (Bertako jakinkoari) eta Baelisto=Belisto, Beltzetik etorri litzake (or daukagu Aker Beltza); Alegria de Dunanci errian Tullonio (Toloño mendar-tekoa dirudi); Miñano Menor erriskan Hellice Helase; Lasa Lats izan liteke eta erreka urakin esan nai du itz orrek; Cabriana'n Uvarna, osasunaren aldeko espiritua da, gaixo baten aide eskatzen bait diote; Arziniega'n Vimumburu, aizkeneko Buru orrek euskera ematen du; Comunion'en Liurma, ez du ematen euskalduna danik, izan liteke indoeuropeoa.

Ildakoen Arlosak

Ildakoen arlosa asko al daude Araba'n?

- Pillo bat: Iruña'n. era desberdiñetakoak 16 eta beste 8'ren berri badegu, baña. galduak; Luzkando'ko elizan iru; Angostina'ko San Bartolome elizan bat: Trebiño'ko San Este ban'en bat; 01 Iabarria'ko San Pedro de Saslesces ermitan bi: La Puebla de Arganzon'eko San Esteban muñoan bat; Pancorbo'ko Santiago auzoan bat; Contrasta'ko Elizmendi ermitan zortzi...

- Araba'ko zer alderditan daude?

- Arlosa oien egoerak Araba'ko zatirik berezienak azpimarratzen ditu: Iruña (Trespuentes) aldea da hat; bertan bait dago gaztelua Antonino Pio'ren 34'garren Bideari segurantzia ematen ziona eta an daude 22 arlosa eta Tutela'ren aldarea-txoa. "Santu" onek, naiz eta asieran itsasontzietan eramana izan, here babosa ematen zien, batez ere. gudariei. Dei Manes'en arlosarik ez da bertan falta.

- Eta, beste alderik?

- Laguardia'rena da: An zegoen Ebro ibaiaren zubirik nagusia, Mantible edo Cantibre izeneko zubia. Gertueneko beste zubia Deobriga'n zegoen, Miranda de Ebro'tik sartalde-runtz. Matribus Useis eta Lares Quatrivi'en aldaratxoak an daude. Quatrivi gurutz-bide esan nai du eta Laguardia ere gurutze-bide hat da. Laguardia'tik kanpo, Araba'ko Lardan zear dijoan Antonino Pio'ren 34'garren bide orretan daude Ninfae, Lares Viales, eta Dei Manes ugari.

- Eta, Contrasta'n

- Contrasta'ko Elizmendi ermitatxoa oso berezia da. Altsatsu'tik gory dijoan Opakua aldapa baño aurrerago Contrasta errixka digo, Naparro'rako bidean, bere oñetan Arana ballara duela. Mendi orren beste aldera daukagu Gasteain, Lana ballara menpean Buena. Bi errien artean Enzia'ko mendiak eta mendiak erriak banatzen ba'ditu ere. artzaiak eta artaldeak batzen ditu eta alkartzen... Zortzi arlosa daude Contrasta'ko Elizmendi ermitan eta beste orrenbeste Gaztein'go San Sebastian elizatxoan... Eta bietan agertzen da, gizonezkoen artean. Cantaber izena. Andik daude Cantabria mendarteak eta Cantaber edo Mantible, Araba'tik Kastilla'rako zubia. Aide auetan Erroma'ko jainko aundiak falta dira. Arlosak berriz, elizetan daude.

Naparroa'n

Erromatarren Jainkoak auek dira Naparroa'n: Jupiter'eri arlosa bat Ujue'n eta beste bana Aibar eta Eslava'n. A. Apennino (Jupiter) jainkoari Arellano'ko Unzizu ermitan. Deo Maximo Peremusta (Jupiter) jakinkoari Rocaforte'ko sukalde-sutegi batean. Marti Invicto jainkoari Monteagudo'n. Soli Invicto jainkoari Ibañetan eta San Martin de Unx'eko Santa Cruz aldean. Mater Magna (Cibeles) jainkosari San Martin de Unx'eko Santa Cruz aldean. Ninfae. Leire'ko monastegian.

- Eta ez al da Dei Manes'erik Naparroa'n?

— Bai, tilde bat: Iruña'n bat; Liedena'n bat; Gazteain'go San Sebastian ermitan zazpi; Maraño'n en iru; Aguilar de Codés'en. tau: eta Calahorra'n arlosa berezi bat, here burua it zuenena, Sertorio it zutelako: Diis Manibus (Q. Senora): ME BREVITIUS CALAGURRITANUS / DEVOVI / ARBRITATUS / RELIGIONEM ESSE / EO SUBLATO / QUI OMNIA / EUM DIIS INMORTALIBUS / COMMUNIA HABEBAT /

ME INCOLUME / RETINERE ANIMAM / VALE VIATOR QUI HAEC LEGIS / ET MEO DISCE EXEMPLO / FIDEM SERVARE / IPSA FIDES / ETIAM MORTUIS PLACET / CORPORE HUMANO EXUTIS.

- Eta, illarriak zenbat?

- Gasteain'en host; Aguilar de Codes'en bi: Villatuertan bi; Maraño'n, Carcastillo. Javier, Lerga, San Martin de Unx, Sos del Rey. Agreda, Sofuentes'en bana. Izenik gabeko illy rriak: Liedena'n bi; Aguilar de Codes'en bi; Sos del Rey'en bi: Andion, Eslava, Galipienzo, Gasteain, Zabel'en bana.

- Bestelako arlosak ba al dira?

- Ooretan eskeñitako bat Santa Cara'n; Eslava'n Dispensator bateri (Abastotako arduraduna) eskeña: Oteiza de la Solana'n bi eta oietako bat XX urteko lapurrek ildako gastea-ri. Leire'ko Ninfae arlosak ere ogibide bat aitatzen du: Aquilegus (uren arduraduna)...

- Eta, zer irudi daude arlosetan'?

- Makoak. giza-irudiak eta batez ere eguzki, illargi eta izarrez beteta daude... Auetatik geienak Lana hallaran daude (beste aldean dago aitatu degun Araba'ko Arana ballara) eta kristau elizetan (baita santuen izeneko muñoetan).

- Eta, nungo tokietan daude arlosa eta aldara oiek?

— Erromatarren hide nagusietan daude. Arlosa auen bitartez ikusten degu nundik nora ibilli ziran jaun auek eta nun utzi ziturten markarik geien. Lenengo eragiña Burdeos'tik datorren 34'garren Bidean: Ibañetan dago Soli Invicto Deo: andik Iruña'ra Dei Manes: Atondo'tik Sakana'ra, an degu Arakil (Ara Coeli=Zeruko Aldara) izena... Bigarren eragiña Iruña'tik egoaldera dijoan bidean: An daude Puente La Reina aide bate-tik eta bestetik Milagro. Villatuerta, Andion, Barbarin (Salatse'ren iru aldaratxo): Estella'ra bidea eta emendik Los Arcos eta andik Araba aldera daude Gasteain. Maraño'n, Aguilar de Codés ainbeste Dei Manes eta eguzki-illargi-izar ikurrekin...

- Eta, irugarren eragiña?

- Tarragona'ko bidean dagoen Kaskanten asi eta andik ifarralderako bidean daude Liédena, Rocaforte, Aibar, Gallipienzo, Santa Clara, Ujué, San Martin de Unx, Carcastillo, Eslava, Sofuentes, Sos del Rey, Javier... Inguru onetan daude Jupiter. Deo Maximo Peremusta, Sol Invicto, Magna Mater (Cibeles), Ninfae eta Dei Manes. Kaskante ondoko Monteagudo'n Marti Invicto eta Arellano'n Jupiter A. Apennino. Liedena'n dago erromatarren "villa" edo basetxe bat eta aren inguruan agertzen dira emen aitaturako Erroma'ko Jainko aundiak. Dei Manes, etxeko jainko oiek, berriz, Araba aldera. Kantabria mendartearen ifaraldetik...

— Eta, bertako jainkorik?

- Ujue'n Jupiter'eri arlosa bat eskeñi ziotenak, aietxek eskeñi zioten beste bat Lacubegi'ri (Askako Iturbegiari), euskaldun utsa; Salatse'ri iru arlosa Barbariñen; Loxa edo Loxa'ri bi Larate'n Loxa edo Lotsa, Verrecundia izango litzake; eta Atta'rena Sos del Rey'en...

- Eta, geiago, zer?

- Atal au D. Joxe Miel Barandiaran'en itzekin amaitu nai det: Onela dio berak (El Hombre Primitivo en el País Vasco. EKIN. Buenos Aires 1944): "Ez dakigu zer itxura ematen zuten Erroma'ko jainkoek euskaldunen buruetan... baña, izadiaren indarreri espiritua eman zieten eta orrela animismoa zan buru aieri kolorea ematen ziena..."

ERROMA ETA EUSKAL KULTURA

KULTURA

— Euskaldunek Pirenee mendietan, Naparroa'ko ifaraldean. Bizkaia n eta Gipuzkoa'n, bizi izan ziran bizi-bide onez eta euren nortasunik batere galdu gabe; baña Araba eta Naparroa'ko egoaldeen ez ziran gauzak berdein gertatu... Eraso aundiagoak jaso zituzten bai erromatarren aldetik eta baita indoeuropeotan-en aldetik ere. Auek. erri osoak etorri ziran guregana emen bertan gelditzeko asmo sendoakin: en-omatare-
rek. ordea. ez ziran orrela erri osoak etorri, gudari, merkata-
ri eta funtzionarioak baizik.

— Baña, euskaldunek parte artu zuten erromatarren burruketan...

— Bai, Sei Gudaroste bereziak (Cohorte Miliaria Equitata), milla gudari bakoitza, izan genduzen eun urtez baiño luzaroago... Baita Sertorio'ren aide jarri ere onek Pompeyo'-rekin izan zuen burruka artan. Sertorio'k galdu eta galtze orren ondorioa izan zan Pompeyo'k Kalagurris erretzea 72 urte Jesus jaio aurretik. Arlosa baten ikusi degu nola kalagurritar batch bere burua iltzen duen, Sertorio il ondoren. Kalagurris erretzea Pompeyo ren Metelo jeneralak egin zuan.

— Lugdunum Convenarum ere burruka orren ondorena izango zan.

— Pompeyo'k berak bildu zitun gaztelu orretan (gaur egun St. Bertrand de Comminges) eta bere landatan, Pirenee gallurrean arapatu zitun Sertorio aldeko euskaldun guztiak. Lenago ere esanda daukagu mendiak erriak bereisten ditula eta banatzen: artzaiak. ordca, batu egiten ditu. Pirenee mendiak ere berdin: beti batu izan ditu bi aldeetako euskaldunak. Banaketa Erroma'k egin zuan, bien arteko muga Pirenee mendian gallurrez-gallur ipiñi zuen egunean...

— Urte askoz berandugo, berdin egin zuan Napoleon'ek.

— Bai, baña, erromatarrek ez ziran lenengo zatiketa orrekin baretu eta beste bat egin zuen egoaldeko euskaldunekin: Naparroa eta Gipuzkoa (Vascones edo vasconizatuak) Zaragoza'ra eta Araba Bizkaia'rekin, Cluny'ra (Burgos'era). Eta zatiketa au dirau oraindik Elizan: Naparroa eta Gipuzkoa Zaragoza'ra eta Bizkaia eta Araba, Burgos'era. Bi Gongotzai edo Arzobispo euskaldunentzat: Bata Zaragoza'koa eta beslea Burgos'koa. Iruña'n bearko luke euskaldun guztien Gongotzaia.

— Etsaia garaitzeko, lenengo zaititu.

Reconstrucción de volúmenes de la villa romana de Almenra de Adaja (Valladolid), según Cruz Fernández Castro.

— BASERRI edo BASETXE (ATALAK). LIEDENA (NAPARRO)

Plano parcial de las edificaciones de la villa romana de Liédena (Nay.) según Taracena.

— Orixe egiten zuen Erroma'k zatitu eta berarekin geiago low; orretarako izendatzen zituen Cives Romani, abantalla gurtiekin. Dana dala, auxe eduki bear da begien aurrean, gauzy bat dala erromatarren bizitza ofiziala, zergak ordaintzea... eta beste hat erriak segi zezakean bizitza, oitura, erlijioa eta abar.

Fundus eta Ager

— Nekazaritza arloan, Erroma'k berrikuntza bat darama Eruopa'ko baztarretara Fundus eta Ager auekin eta, bereizki, Ebro-ballara eta here ingumarietara.

— Eta. zer da Fundus bat?

— Lur eta etxe biak alkarrekin, nekazaritza aurrera eramateko. Ori zan oraingo "inversio" baten antzeko. Fundus batek nagusi bat du aren jabe. Arazo onen asieran, Erroma'ko jende aberatsak, euren diruak zaintzeko, lurak erosten zituzten eta erdian eurentzako etxea jaso eta langilleentzako etxetxo batzuek. Geienetan nagusia Erroma'n bizi izaten zan: beste batzuetan, berriz, "Villa" ere esaten zitzaion, jauregi antzeko Fundus orren baserri-etxeari. Lurak etxerik ez zuenean, orduan, Ager esaten zitzaion.

— Nolako lurak bear ziran Fundus bat osatzeko?

— Garia ercitzeko zati bat, maztegiak ardoa ateratzeko, olio sortzeko arboledia, belartegiak. mendiak, iturriak eta errekek, bide zabal baten ondoan eta uri bat gertuan, emaitzak saltzeko... Nagusiaren etxean ura ugari eta pizsina beroak (terma), arkupe edenak, danetariko gela sailla. Dei Manes (Etxeko Jainkoak) gurtzeko kapera batekin...

— Zer neurri zeukaten Fundus oiek?

— Frantzai eta Akitania'n 10 milloi metrotik 15'rekoak izaten ziran gutxi gora-beera (1.000 ektareatik 1.500'era). Naparroa'n txikiagoak: 500.000 millatik milloira metrokoak. Hispania'ko egoaldean oso aundiak eta itxuragabeak ziran (latifundio): eta orrela gizaldietan zear irauñ dutenak. Naparro eta Araba'n Fundus oietatik sortu ziran ainbat erri txiki.

— Nolakoak ziran nagusiaren etxeak?

— Arri ederrez egiñak, mannolez jantziak, margoak eta mosaikoak lur-gañean eta ormeetan... Etxe zoragarriak, gure euskaldunen borda edo txabolekin konparatzeko. beintzat. Baña, nagusiaren etxeakin ez ziran bearkizunak amaitzen; Fundos batean langille asko ziran bearezko: nekazariak, olagizon eta errementariak, buztin-moldatzal leak, artzai eta unai, uraren zaindaria. baso-gizonak, serbizari eta morroi... Zer, ez? Oien danentzako etxeak inguruan zeuden. korta, ikullu, labe eta abar bezela. Mundu oso bat sortzen zan Fundos baten alboan.

Ebro-ballara ez zan txarra izango orretarako.

— Oso ona: lur sakonak eta ura ugari... Erromatarrek eka-
rritako goldeak, oraindik orain, XX'garren gizaldiaren asie-
ran, milloi bat baño geiago zeuden España'ko nekazaritzan...
Gure artean, goldearen ordez, laiak; alert golderik ez zan sar-
tu Bizkai eta Gipuzko baserrietan. Emen, laiatik alduzkako
goldera (Bravante) salto egin dute. Alaz ere, arazo auetan
erromatarren ekintzak izugarritzakoak izan ziran bertako jen-
dearentzat.

— XX'garren eunki onen asieran ez dago Errioxa'ko errie-
tan tolarre gabeko etxerik.

— Tolarea. kupelak... maastiak eta mastiko matsa ardo
biurtzeko aalmena. Baña, 1959'an, Naparroa'ko Funes errian,
arlo onetan, sekulako aurkitzeak egin dituzte: 700 laukiko
metro-tokiak eta bertan ardoa egiteko bear diran tolarre. matsa



Kulturureu eutsigurri.

zapaltzeko lau gela, upelentzako lekuak... Zazpi metro zabal eta eun luze edo orren antzeko lantegi bat. Bi urrezko diru ere topa dituzte: bat Domiciano'rena (76'garren urtekoa) eta beste Adriano'rena (1 'engo eunkiaren zearrekoa). Diru oiek esaten digute noizkoa zan ardotegei on.

Baña, gure baserritar eta artzaiek Ebro'tik oso urruti zeuden.

— Alaz ere, erromatarrek ekarritako ardo-kultura ori, sagardo-kultura biurtu zuten eta ez da egon gure artean tolaire eta kupelik gabeko itxurazko baserririk... Gauzak bakarrik ez ziguten erekutsi; baita izenak eurak ere, "tolare" eta "kupela" latinezko berbat bait dira biak.

EUSKERA

—Latiñez "torcular" eta guk "tolare" biurtu degu. "Kupela" latinez Cupa-cupella esaten da. Cupellak Cupa txikia esan nai du eta guk Kupela Cupa aundia egin degu. Itz oieri geure ikutua eman diegu; baña, berez, latinak dira. Gure artzaien kultura emen bertan mugatua zegoen Pirinee inguruan; erromatarrena, ordea, Mediterraneo-ertz guztietatik zetorren: Asia, Afrika eta Europa tartean zirela. Kultura-aberastasun aren aurrean bazuten zer ikasi gure orduko arbasoek. Kulturaren agerpen bakoitza bere izen bakoitzekin etorri zan eta, bi mila urte pasata gero ere, izen oiek diraute orduan esaten ziran moduan; naiz-eta latina bera aspaldian ilda egon.

—Ori nun agertzen da?

—Esate baterako, guk Porru esaten degu, aiek Porrum eta erderaz Puerro. Guk Kipula, aiek Kepul-la, erderaz Cebolla. Guk Piperra, aiek Piper, erderaz Pimiento. Baba, Faba eta haba. Bararruna = Erromatarren baba. Piku, Fikum, Higo.

Kereiza, Kerasum, Cereza. Oliao, Oleum, Aceite. Mertzika, Persika, Melocotón. Sekale, Secale, Centeno. Marrubi, Marrubium = Fresa silvestre. Gorpua eta Gorputza, Corpus, Cuerpo. Soin eta soñeko euskera utsak dira. Erdera latiniaren semea da; baña, euskerak obeto gordetzen ditu latinezko itzak erderak baiño.

— Animalien arteko itzak Zaldi eta Asto ez dira latina; Zamari, bai (Sagmarium = animal que lleva albarda para carga), erderaz, Mula. Antzar, Anser, Ganso. Aate, Anate, Pato. Aragi, Aarikitik dator, txerriki txerriki bezela. Lukainka, Likanica, Longaniza. Sukaldean: Sartagi eta Sartain, Sartago, Sartén. Katillu, Catillum, Platillo: (esan-naia aldatu diogu). Galdara, Caldaria, Caldera. Lapiko, Lapis, Puchero... Bañan sukaldeko ekintzak euskeraz diraute: egosi, erre, irakin; baita zuku, gatz, ardo, sagardo, esne, ur, ogi, opil, ore, oremai, gazte, gaztanbera, ezti, erle, erlauntz, abaraska eta abar.

— Eta, jantzieta?

—Zerki berriak agertzen dira: Praka, Braka, Pantalones. Sakela, Saccela (Sakel-la), Bolsillo. Kaltza (kaltzer-

di), Calceus, Zapato. Matassa, Mataxa, Hilo. Gona, Gonna, Falda. Goru, Colus, Rueca. Titare, Digitale, Dedal... Liñu (liñazi), Linum, Lino. Istupa, Stoppa, Estopa. Lixuba, Lixivium, Lejía... Ingude, Incudis, Yunque. Mallua, Mal-leum, Martillo. Aingura, Ancora, Ancla. Katea, Catena, Cadena. Errota, Rota, Rueda...

—Eta, etxegintzan?

—Etxegintzan, beste kultura gaietan bezela, gorengoan mailletan ebiltzen erromatarek; gu, berriz, txabol, borda eta leize-zuloak ugari eta andik irten eziñik. Ona itz batzuek; Gaztelu, Castel-lum, Castillo. Dorre, Turrís, Torre. Gela, Cel-la, Celda. Tella, Tegula, Teja. Tellatu, Tegulatum, Tejado... Baña, etxeko gorabeerak euskera utsez diraute: sua, sutegia, sutautsa, sukalde, ikatz, egur, zuzi, zura, gar, txingar, txinar...

— Eta beste-kultura agerpenik?

— Berriak diranak Buren izenekin datorte eta ekintza berriak sort-arazten diturte etxegintzan bezela, arrobi lanetan, ermentari eta arostegetan, burtigintzan, mosaikogintzan, margolaritzan eta abar. Soñeko, moda berriak eta gai berriak... Tresnerian ere berdin. Nekazaritzan tramankulu berriak eta ematiza berriak... Dana zan berri. Bideak zer esanik ez: lengo bidetxur eta gurdi-bideak zabaldu zituzten, sustraietetik berrituz, sendotuz, zuzenduz, malkarrak legunduz, mendiak jexiz eta ibarretan zubiak jasoz... Euskaldun artzaiak, begiak zabal-zabalik, kultura agerpenezko egin zuten Bizkai eta Gipuzkoa'ko biotza; alaz ere, kultura orren aztarnak aurkitzen dituguz aizken-muturreko mendietan ere... Ez gera iñorekin ar-emanik izangabeko erri basati bat izan. Kultura-gaiak artu ditugu; baña, beti, kultura orreri geure ikutua emanez...

ARRINDA'TAR ANES

BELENGO ASTOA (2N. SARIA)

(Gabonetako ipuiña)

Jaungoiko andiak, bere Seine Jesus Belengo estalpean jaio zanean, zeruko aingeruak bere aurrean batu, eta esan eutsen:

"Aingeru leialak: zuen zidarrezko turutak artu, eta mundu guztira egaz zabaldu zaiteze, lurtarrei munduko salbatzaillea Belenen jaio dala adierazoteko..."

Eta zeruko aingeruak, millaka eta milloika, zerutik lurrera jatsi. eta munduko lau alderdietan turutak jotzen asi ziran: "Aintza zeruetan Jaungoikoari, eta bakea lurrean gizonei".

..... x 'r=ET' . X' K.e.1c

Basoetako errege Leoi arroa bere orbelezko oe bigunean lo egoan.

Eta aingeruen abestia entzun ebaneko, bereala oetik jagi, buruko ule luzeak orraztu, armiñozko kapa ederra jantzi, eta buruan diamantezko koroia ebalda, Belengo bidean jarri zan.

Eta arin-arin, ibilli eta mendiak igon eta sakanak jatsi, bidean Otsoarekin aurkitu zan. Sasi artean ostenduta egoan Otsoa, andik noiz bildots errubakoren bat igaroko, arrapatu, il eta jateko.

Eta Leoiak Otsoari:

"Egunon, otso-otsoko. Zer inoduz gaurko eiza?. Oraindiño bildotsik ez jateko?"

Eta Otsoak Leoiari:

"Nora doa ain arin eta lasterka gure basoetako errege jauna?"

Eta Leoiak:

"Munduko erregea jaio ei da Belenen eta ezagutzera noa. Zatoz zeu ere neugaz, Otsoko".

Eta Otsoak:

"Itxaron bekik apurtxo baten, Leoi Jauna. Bidean zer edo zer jan berko dogu eta, agiñak eta erpeak zorroztera noa, bear bada, bidean bildotsen bat edo beste aurkitzen badogu, zast! arrapatu eta jateko".

Eta Leoi arroa eta Otso ankerra an doaz arin-arin, ibilli eta ibilli. mendiak igon eta sakanak jatsi, Belengo bidean...

Eta bidez-bide aurrera doazela, ara non aurkitzen dabean Azaria oillategi beten inguruan bueltaka nondik

barrura sartuko begira, oillasko okela samurraz gosaria egiteko.

Eta Leoiak Azariari:

"Zer egiten dok or, Azari maltzur orrek, zoro antzera bueltaka, tripako gose-zorria ezin aserik?. Ator geugaz Belenera munduko errege jaio-barria ezagutzera..."

Eta an doaz Leoi arroa, Otso ankerra eta Azari maltzurra, arin-arin, ibilli eta ibilli, mendiak igon eta sakanak jatsi, Belengo bidean...

Eta bidez-bide aurrera doazela, ibai bat aurkitu eben, eta ibai ondoan errota, eta errotako atean Astoa sokaz lotuta.

Eta Leoiak Astoari:

"Zer egiten dok or, Asto belarri-andi, esklabo baten antzera atean lotuta?. Ator i ere geugaz Belenera munduko erregea ezagutzera. Ire belarri tente luzeak "radar-arena" antzera Belengo bidea erakutsiko deuskue, eta ire arrantza sendoa pregoi-deia izango dok Belenengo-entzat gu eldu gareala jakin daien".

Eta arin-arin. ibilli eta ibilli, mendiak igon eta sakanak jatsi Leoi arroa, Otso ankerra, Azari maltzurra eta Asto apala taster Belengo aurrean aurkitu ziran.

k96k-x*****96k+a**961*96196k

San Jose agertu jaken estalpe aurrean, eta onek, lau lagunei ongi etorririk gozoena egin ondoren, Leoiari diñotso:

"Zerk dakar basoetako errege andi ori, gure estalpe apal onetara?. Zertan berorren esana egin geinke?"

Eta Leoiak San Joseri:

"Esaidazu, gizontxo. Ernen bizi da jaio-barri dan muduko erregea?. Estalpe zar onek ez dau errege -jauregi itxura andirik, baiña urrinetik gatozen ezkerero, ez geunke geure lurraldera esku-utsik biurtu gura".

Eta Josek:

"Leoi jauna. Estalpeko atea txikia eta estua da, eta berori kapa eder orregaz ez da ate orretatik kabitzen. Eta gainera ume jaio-barria txiroa da, eta berorren diamantezko koroia ikusiko baleu bildurtu eta negarrez asiko litzateke... Parkatu. Leoi jauna, baiña berori ezin da sartu".

Ezekoa entzunik, asarre bizian sutu zan Leoi arroa, eta amorraturik. erreminduta, andik aide egin eban...

Gero Otsoa urreratu zan estalpera sartzeko baimen eske.

Eta San Jose'k Otsoari:

"Ea, erakutsi Otso anker orrek, zure eskuetako erpeak eta agoko agiñak. Danak odolez gorriturik daukuzuz... Zenbat bildots errubako il eta jan ete dozun!! Estalpeko jaio-barria bake-errege da, eta ilketa eta gerrarik ez dau maite. Zu lango odol-zaleentzat ez dago estalpean lekurik... Aide emendik!"

Azari maltzurak, Leoia eta Otsoa estalpetik kanporatuak izan zireala ikusi ebanean, bere artean pentsatu eban: txarrean ezin dana, onean lortzen da... Eta estalpeko zaindariaren oiñetan belaunikatu, eta mustur luzea lurrean josiz, asi zan San Joseren gorlpenak abesten:

"Belengo estalpeko zaindari zintzo, leiala. Nor zu tango santurik?. Nor zu baino gizon jatorragorik? Zorionekoa zu, zeru-lurren errege jaio-barriaren zaindari arduratsua zarealako..."

Eta Jose Deunak ainbeste koipekeri ezin eroanik, azariari, zast! buztana zapaldu eutsan.

Eta azari maltzurak here labankeri guztiekaz aieneka eta txilioka andik anka egin eban.

Eta estalpe aurrean Astoa bakarrik geratu zan. Eta onek, belarriak makurtuta apal-apalik, San Joseri diño-Tso:

"Jauna, ni asto belarri-andi bat besterik ez naz. Ni ez naz inor munduko salbatzailea ikusteko, baina alan da ere, emendik aide egin baino len ikusi gura neuke. Mese-dez, sartzen itxi eidazu".

Eta Josek:

"Bai. zatoz estalpe barrura. Asto apal, langilea. Kanpoan otz egiten dau, eta Ume jaio-barria otzez dardaraz dago gaixoa, eta zuk zure agoko arnasaz berotu zeinke".

Eta Jose Deunak estalpeko atea zabaldu, eta Astoa barrura sartu eban.

Ene Jaungoikoal. Eta an estalpe barruan zer ikusi ete eban gure Asto apalak?. Estalpe zarrak zeru txiki bat zala emoten eban...

Estalpe erdian, askan etzunda, begiak eta ezpanak irribarrez. Jesus Umea egoan, eguzkia baiño ederrago, udabarriko bitxilorak baino bikainago.

Eta Umearen ondoan Maria here ama, seme jaio-barriari seaska-kanta samurrenak abesten.

Aingeruak eukazan Mariak inguruan euren soiñugailuak jotzen.

San Mikel aingeruak turtuta, San Errafelek gitarra. San Gabirelek biboliña, eta besteak olantxe...

Danen artean, bai, abesbatz bikaña egiten ebela!!!

Zer abeste eben?

"Mesias sarritan agindu zana, aingeru artean dator gugana..."

Eta estalpekoen poza eta kantuak entzunda, San Jose bera ere abesteko bizkortu zan, eta estul eginda, samea garbituz. asi zan here abots lodiaz kantariei laguntzen:

"Gloria zeruan, bakea emen

kantari aingeruak dagoz Belenen".

Eta Astoa zer?

Astoa jaunak, geure eleizetako organuak lez, bere arrantza sendo, indartsu, luzeaz kantari guztien abotsak estaltzen ebazan.

"Antxe dago. Antxe dago. Antxe dago, bai!

Aurtxo txikia askan dago..."

GOIKOETXEA'TAR IÑAKI

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEAK'K ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko erea. Etixerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dau-tzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 2.000 pezeta dirala idatzita. Txartel on sartu karta-azal batean eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colón de Larredtegi, 14, 2", eskoia. 48001 BILBAO

Eskerrik asko urtero zintzo-zintzo ordaintzen dozuen guztioi.

BIZKAIKO ESKUALDEAK (I)

Bizkai'ko eskualdeak 7 dira:

- Markina-aldea.
- Arratia-aldea.
- Plentzia-Mungia aldea.
- Durango-aldea.
- Enkarterri-aldea.
- Gernika-Bermeo aldea.
- Bilbao-aldea.

Eskualde batzuk (Durango, Enkarterri, Gernika ta Bilbao-aldeak) nortasun berezia dabe.

MARKINA-ALDEA

Bizkai'ko ipar-sortaldean dago. Bere sortaldera Gipuzkoa dago eta egoaldera Ibaizabal eskualdea. Menditsua da ta baso ugari jantzia. Piñadi aundiak dauz. Bilbo'gaz komunikabide urriak dauz. Industria aldetik indar txikia dau. Eskualde onen erri nagusia Markina da. Amairu errik egiten dabe eskualde au; Arbazagi. Aulestia (Murelaga), Mendexa, Gizaburuaga, Amoroto, Ixpaster, Etxebarria. Erri oneik ez dira ugaritzen. Indar aundia daben iru erri dauz: Markina, Ondarroa ta Lekeitio.

MARKINA

4.710 biztanle ditu. Lurrez Bizkai'ko erririk aundienetakoa da 44.5 km². Gitxi azten da, beste eskualdeak baño gitxiago. Baserri girokoa da eta nekazaritza ta ganaderitza bizi da batez be. Ba dauz lantegi batzuk ere, baña, txikiak eta erdi-maillakoak. Geienak zura, elikatura ta metalurjikoak. Markiñak berak industria txikia daukalako, ezin dau indarririk artu ta jendea Durango, Eibar eta Elgoibarrera joaten da.

LEKEITIO

6.855 biztanle. Garrantzi aundia dau udaleku lez. Millaika sartzan dira udan. Turismoz gaiñera, arrantzua ta arrantzu-industriak dauz. Ontzigintza apur bat be bai ta ontzi-konponketarako industriaren bat.

ONDARROA

Ondarroak 11.774 bizilagun dauz. Ur aundietako

arrantzuan Bizkai'ko lenengo kaia da. Larogei ta amabost ontzi-arrastari dauz gitxi gora bera ta beste irurogei bat urtxiketarako. Industria aldetik espaldikoak dira Ondarroan arrain-kontserbak eta gatza emoteak. Arrantzale-kooperatibak be garrantzia dabe Ondarroan.

ARRATIA-ALDEA

Ibaizabal arana eta Gorbea mendikatearen bitartean dago. Mendi orrexek banatzen dau Arabatik. Barazar (604) portutik zear joaten da Kastilla aldera. Eskualde onen goialdeetan, Zeberio, Arantzazu, Areatza (Villaro), Dima, Gaztelu-Elexabeitia eta Orozko erriak aurkitzen dira. Ganaduatzatik, nekazaritza eta basoko aberastasunetik bizi dira. Basoak ugaritzen doaz aide onetan.

IGORRE

3.133 biztanle. Bilbo, Lemoa eta Zornotzatik ur dago-lako, eta Ibaizabal arana industrias asetzen daoalako, erri au ere industri bidean dago.

ZEANURI

1.403 biztanle. Bizkaia-maillan basotzarik aundiena dauan erria da. Zeberio dator ondoren. 1.168 biztanle dauz onek.

ORDUNA

4.660 biztanle. Bilbatik berrogei bat kilometrora, Araba eta Burgosen bitartean dagoan lur bitarte bat da. 1960 urtetik gitxi azi da. Bertako jentea, Bilbao eta beste industria-toki batzuetara joaten da. Nekazaritza dau bere aspaldiko bizibidea, baiña industria batzuk be sartu dira azken aldi onetan.

PLENTZIA-MUNGIA ALDEA

Eskualde au beti ere laborari eskualdea izan da: Garia, babarruna, artoa. 1960 garrenean asten da apur bat industrietan. Ekonomiaren aldaketaz, bizibidea be aldatzen joan da. Ortu-lanak erdi itxita dagoz. Orain industria lana egiten da. Baserria estu-aldi larrian dago. Baserria galtze-ko bidetik doa.

Eskualde onek erri interesagarri bi ditu: Mungia eta

Plentzia (Gaminiz). Amabost erri artzen ditu. Nekazari erriak gixitzen doaz emen ere: Arrieta, Maruri, Meñaka, Fruniz. Laukiniz, Lemoniz.

MUNGIA

10.050 biztanle. Barazki eta egaztietan oso indartsua da. Sidero-metalurjia eta argi-indar industriak sartu dina Mungia ta Urdulizera (2.512 biztanle).

PLENTZIA

2.960 biztanle. Plentziak, Gorliz (2.626), Bakio ta Sopenarekin batera. Bizkaiko itxas-ertz entzutetsua erutzen dau. Eskualde ontan nekazaritazatik eta basoko aberastasunetik bizi dira. Uda-denporan ostera, dana aldatzen da eta turismotik egiten dabe bizi-bidea. Bilbo-aldeetik jokera aundia dau erri orreitar. Plentziak uda-denporan beste 10 bider jentetza aundiagoa izaten dau.

DURANGO ESKUALDEA

Durangoko eskualdeak nortasun aundia izan dau kondairea-zear.

Durangoko eskualdea, iru erri kendu ezker: Ermua, Mallabia eta Otxandio, Ibaizabal aranean dago osorik. Mendiz inguratuta dago: Iparraldera Oiz eta egoaldera Anboto.

Amalau erri artzen dauz: Abadiño, Zornotza-Etxano, Berriz, Durango, Elorrio. Ermua, Garay, Izurza, Lemona, Mallabia. Mañaria, Atxondo Arana, Bedia eta Zaldibar.

Jendetza aundia dau eskualde onek. Baita industria ere. Etorikin asko dagoz eskualde onetan.

Bilbo, Gazteiz eta Eibarrekin komunikabide onak daukaz.

Bizkaia eta Gipuzkoa industria-leku indartsuen artean dago.

Durango industria-erria izan da lendik ere, eta langille-jente ugaria dauka inguruan.

ESKUALDEAREN BIZTANLEAK. Km2 272 biztanle ditu eta ugaritzen doa. Bilboren ondoren bera da ugaritasunik aundiena dauan lurraldea. Biztanlei begira, iru ernota aurkitzen ditugu:

—Jentetzarik geiena dabenak (Durango, Ermua eta Zornotza).

—Bigarren maillako erriak: Elorrio, Abadiño, Berriz, Lemona, Zaldibar.

—Baserri-giroko erriak: Garai, Izurza, Mallabia, Mañaria, Atxondo-arana eta Bedia.

Baserri-giroko erriak jentea galtzen doaz edo geldirik

dagoz. Ermuak oster, km2 2.721 biztanle ditu. Euskalerriko ugaritasunik aundiena dauan erria da.

BIZIBIDEAK. Ekonomia aldetik Durango-aldean egiten dan lanik garrantzitsuena industriarena da. Nekazari alderdian, Ian batzuetarako aukera onak dagoz: Ortuari, baso, bedar eta abarretarako. Ganadutzan abelgorria dago batez ere.

Nekazaritzan solo txikiak dagoz eta familietarako premiñarako artzen da. Artea da laboreetan geien artzen dana, ondoren ortuariak, babak, arbia, patatak eta abar datoz. Ortuari lanak, batez be, Berriz. Mallabia, Elorrio, Zornotza eta Durangon egiten dira.

INDUSTRIA— Bilbao nagusia industriaz asetz, Durangoko eskualdera etorri da. Durangorekin batera industriarik geien dabenak oneik dira: Zornotza, Ermua eta Elorrio. Mota askotako industri-lanak egiten dabez: Metal-kien aldaketa doa lenengo. Eta metalkien artean onelako berezitasunak emon daitezke:

—Kotxegintzarako industri laguntzaillea.

—Burdiñaki ez diren metalak: laminazio, txapa, banda eta abar.

—Burdiñaki metalak urtzea: Otzean estanpatzea.

—Tresnagintza.

Badira beste industria batzuk ere: Zeramika, porlan, kimika, zur-industria eta abar.

DURANGO ESKUALDEA— Durango da eskualdearen uriburua. Grain, 25.758 biztanle ditu. Geienak etorkiñak dina. Industrian dago here ekonomi-indarra, metalurjia-industrian batez be. Badira beste industria batzuk ere: Zura, papera eta grafika-arteak.

Ardi Aroko erria da Durango. 1.290 eta 1.300 bitartean sortua. Bere alderdi zaarrean oraindik be agirian daukaz aspaldi bateko ezaugarriak.

Bost kale daukaz alderdi onetan:

—Kanpokaldean, konbentu-kalea.

—Kalebarria, bearbada, sasoi batean kanpokaldea izana.

—Goienkalea (Goikoa).

—Artekalea (bitartekoa).

—Barrenkale (beekoa).

Santa Ana eta Andra Mari parrokiak Artekale eta Goienkale ertzean dagoz.

ARREGI'tar JOSU (1979)

ORREAGA - 778

Frankoen erregerik ospetsuena Karlos Aundia izan da. Europa erdiaren jaube. Gizon ase-ezina.

Zalduba menperatuta eben mairuak jagi egin ziran Kordobako emir zan Abd-al-Rahman'en aurka eta Karlos Aundiarengana jo eben laguntza eske. Kristau-Erri osoaz jaubetu gurarik Iberiara, mairuen menpean egoan Iberiara jo eban.

Bere erreinua audituteko asmoz, Zalduba'ra bidea artu eban, bada, Ibañetako mendilepotik Auñamendiak zearkatuz.

Zalduba'ra elduta, mairuak eritxiz aldatuak ziran eta ez eban Karlos Aundiak an bape lortu. Andik laster, Karlos Aundiak, here asmo eta guraria bete barik, etxera joateko egindua emon eban.

Etixerako bidean joiazala, Iruñe'ra eldu ziran eta bertako arresiak austu ostean, euskal uriburuan lapurretan egin eben frankoek, ondo ezagututen ez doguzan zioakaitik. Gero, arro-arro, leengo bideari jarraitu eutsoen.

Orreaga'ra eldu ziranean, erreskada luzean ipini bear izan eben euren gudarostea, toki a mendi bitarte estu-luzea zalako. Gudarostearen aurrekaldea eta atzekaldea alkarrengandik asago. Aurrera etozan. bada, frankoak, txiri-txiri etorri be... Baina euskaldunak basoan zelatan, ostenduta egozan. Alango baten. OrreaQa eta Luzaide'ko tartean, sasoa eldu zanean, agertu ziran, bai... euskaldunak. Frankoen leengo ekintza donge aren ordainez, Karlos Aundiaren gudarosteak erasoaldi gogorra jasan bear izan eban euskaldunengandik. Goitik beera arriak eta azkonak jaurtita, astindu ederra emon eutseen azpian etozan frankoei.

An jausi ziran betiko Errolan. Karlos Aundiaren lobe, buruzagi ospetsua eta aregaz batera beste jaun eta andiki asko. Triskantza ikaragarria. 778. urteko dagonilaren 15ean izan zan. Frankoek eta euskaldunek egundo be aaztuko ez daben eguna. Orreagako Ibañeta mendilepoan dagoan oroitarrak Karlos Aundia enperadorearen osterea gomutetan deuskun lez.

Garaipen onek. beste aldetik, garrantzi aundia dauka euskaldunon kondairan, Naparroako erreinuaren sorkuntzan eraffin aundia izan eban eta.

Gaur egun ain bearrezko dogun euskaldunen batasunaren adibide nabaria, Erbestekorik Euskal Errian ez daiten nagusitu.

Burruka on zala eta, iru mende beluago, Eropako eta betez be Frantziako literaturan, beste olerki epiko batzuen artean, burruka oneri buruzko eta ospe andikoa izango zan "CHANSON DE ROLAND" (Errolanen kantua) izeneko olerki epikoa sortu eban.

Gure literaturan be gai au beluago ukutuko eban, esate baterako. iparraldeko Duhaldek euskeraz itzulitako "ALTABIZKARKO KANTUA" edo Arturo Kanpionek ainbat euskalkitara idatzi eragindako "ORREAGA" olerki epikoa, aitatutekotan. Berau dakartsuegu, bada, ondoko onetan zuontzat beren-beregi atonduta.

Orreaga

Gauerdia da...

Karlos Aundia ErreQea Auritzen dago here gudagizonakaz.

Zeru ilunean ez da agiri ez iretargirik ez izarrik.

Kantuan diardue frankoek.

Euskaldunek, bitartean, euren azkora eta azkonak zorrozutzen diardue Ibañetako atxetan.

Loak artu ezinik dago Karlos Aundia, begirik ezin batu larriaren larriz.

Oge ondoan, lagun zintzo bi:

Errolan indartsua, ospe aundiko Durandarte ezpatea garbituten, eta Turpin gotzaina Jaungoikoaren Ama Mariari otoika.

Gaua, geroago eta ilunago.

Argitasun izpirik be, ez da inon agiri...

Karlos Aundiaren gudamutilak lo zabalean...

Bien bitartean, an asago,

mendi gailurretan, sugar aundiak dizdiz.

Ibañetako atxetan,

euren azkora eta azkonak zorraztuten euskaldunek.

Zer da zarata-ots ori? -dino Karlos Aundiak-

Irati basoan aizeak eragindako abarrotsa da

-erantzuten deutso Errolan indartsuak-

Edo, bear bada. Andresaroko ardien bee-marraka larria.

Eriotzearen negar-intziria emoten dau -dino Erregeak.

Egia -Errolanek-... Erri onek,

guk egin deutsoguzan kalteak gogoratutean,

negar egiten dau...

Baina, jauna, lo egin daigun!

Ai, ene! -dino Erregeak-, ezin loak artu.

Sukarrak erreta nago...

Baina zer da ots ori`?

Errolan lo dago.

Turpin gotzainak erantzuten deutso:

- Jauna, egizu otoi nigaz-

Zarata-ots ori, euskaldunen guda irrintzi zolia da.

Gure gizon indartsu askoren azken eguna da gaur.

Egunsentiak argituten dauz mendiak.

Igesi doa Karlos Aundia, garaitua,

here luma baltz eta kapa gorriaz.

Euskaldun ume ta andrak, ostera,

pozaren pozez dantzan Ibañeta inguruan.

Erbestekorik ez da nagusi Euskal Errian,

eta zeruetaraino elduten dira

menditarren irrintzi ta gedar alaiak.

Berbalapikoa

Karlos Aundia = Karlomagno

asezin = begigose, inoiz asetuten ez lona.

Zalduba = Zaragozaren euskal izen zaarra.

mendilepo = atxarte, atz-bitarte, trokarte, mendizintzur.

Auñamendiak = Pirinioak.

arresi = arriz egindako esia edo ornea.

zio = arrazoi, zergaiti.

erreskada = lerro, ilara.

gudaroste = armada.

txiri-txiri = astiro-astiro, tipi-tapa.

donge = zital, makur, gaizto, biurri.

jasan = nozitu, eroan. (bizitza okerraren ondorioak jasaten dauz orain orrek)

azkon = gezi.

triskantza = sarraski, ilketa andi, ondamendi.

oroitarri = nonor edo zeozer gomutetan dauan arria.

oster = bidai.

kondaira = istoria.

nabari = agiriko, argi ta garbiko.

mende = 100 urte, gizaldi.


olerki = poema.

ospe = izen, entzute, fama.

beren-beregi = bereziki, batez be.

atondu = eratu, moldatu.

-tan jardun = -tan egon, -tan ibili.



— *Karlomagno here loba Erroldan ildakoaren aurrean negarre.*



begiak batu = loak artu.

otoika = otoitz egin.

izpi = dirdira, printz, errainu (argitasun-).

gailur = tontor, gane, bizkar (mendi-).

abarrots = zugatzen adarrek egindako zaratea.

bee-marraka = ardiek egiten daben zaratearen izena.

negar-intziri = negar-zotin, erosta.

sukar = kalentura.

zoli = ozen, burrunbari. (zaratea zelakoa dan).

egunsenti = goizalde, goiznabar, argiaste, goizargi.

garaitu = irabazi.

Iniaki MARTIARTU

1996ko zemendian

— *ERBESTEKORIK EZ DA NAGUSI EUSKALERRIAN!*

LAU LAGUN INDARTSU

(Euskal ipuin zaarra)

Munduan beste asko lez, Susubil errian mutil gazte indartsu bat bizi ei zan. Giartsu zan aren izena.

Beinola baten, Giartsuk amalau arroako burdinmakila eskuetan artu eta ludi zabalera urten ei eban, bazterrak ikusteko asmotan. Joan ta joan, ibili ta ibili, gizon indartsu bat aurkitu eban, atx andi bateri eusten eutsola.

—Zertan zabilz, gizon indartsu?, itandu eutson Giartsuk.

—Erriaren ganera jausi ez daiten, atx oneri eusten dago emen, erantzun eutson gizonak.

—Ez zara makala. Zatoz neugaz, inotson Giartsuk.

Biak joan ta joan, ibili ta ibili, eiztari bat aurkitu eban, errotarrian oin bat sartuta eukala.

—Zergaitik zagoz orrelan, eiztari arin?, itandu eutsoen.

—Ni arinegia naz eta erbiei aurea artuten deutset, eta erbien neurrian lasterka egiteko, errotarri au astungarritzat artu dot, erantzun eutseen.

—Ez zara astuna. Zatoz geugaz.

Irurak, Giartsu, Indartsu eta Eiztari, joan ta joan, ibili ta ibili, olagizon bat aurkitu eban here agoko arnasaz putz ta putz egiten egoala.

—Zertan zagoz, olagizon?, itandu eutsoen.

—Nik neure agoko arnasaz zazpi errota eta iru olari, ibili daitezcan, indarra emoten deutset.

—Ez zara txatxarra, olagizon. Zatoz geugaz.

Laurak, Giartsu, Indartsu, Eiztari eta Olagizon, joan ta joan, ibili ta ibili, Galiporniako erreinuaren uruburu-eldu ziran. Izan be, erriko jaiak ziran eta erri guztia soinu ta dantza, posez eta alaitazunez jaietan egoan. Baegoan an aldarte onik, bada! Jaietako olgetarik ederrrenak txapelketak ziran eta baita sariak be ezin obeak.

Leenengo txapelketea lasterketea zan: arineketan ea nor leenengo izan. Txapeldunak katanarrua, urregorritz beterik artuko eban saritzat. Lasterketea asi zanean, gure Eiztari arinak, beste korrikalari guztiak sei legoa atzean itzi ebazan. Areen arnasestua Euztariren atzetik! Urregorritz betetako katanarrua gure Eiztarirentzako izan zan.

Ain ikusten zan, zelai erdian, ogei arroako arri astuna, nork geiagotan leporaino jasoko ete eban begira egoala. Lepora geiagotan jasoten ebanak ardinarrua, urregorritz beteta, izango eban saritzat.

Galiporniako gizonik indartsuenak ziran, baina aalegin guztiak eginda be, ezin izan eban, ezta bein be, arria leporaino jaso.

Orduan, gure Giartsu zelai erdira joan zan, garrikoa ondo estutu-ostean eta bearen ganean makurtuta, ogei arroadun arritzarra artu, lepora jaso eta atzamar txikiak, pelotea balitz lez, lepo inguruan bira-biraka erabili eban. Ango txaloak eta on dok eta!, on dok eta! gedarrak!

Arriaz naiko olgatu ostean, bearen ganean itzi eban Giartsu'k eta erregearengana joan zan, irabazitako sana artutera joan be. Ardinarrua, urregorritz bete-beteta, emon eutson, bada, Galiporniako erregeak.

Lau lagunak, Giartsu, Indartsu, Eiztari eta Olagizon poz-pozik egozan.

Iruáarren txapelketea sokatirea zan eta Galiporniako erregeak idinarrua emongo eban saritzat, urregorritz goraino beteta, jakina.

Soka luze bat zelaira ekarri eban eta erdian zapi zuri bat lotu eutsoen. Sokamustur baten Galipirniako eun gizonik indartsuenak jarri ziran eta bestean atxari eusten eutson gum morroskoa.

Galiporniako erritarrek, bitartean, Indartsuri barre egiten eutsoen:

—Erbesteko gizon orrek, gure gizonak oilo lumak dirala uste izan ete dau?

—Epaileak turutea jo eta indarketea berealan asi zan.

Leenengo bultzakadan gure morroskoak, Galiporniako eun gizonak, dandarrez, here aldera ekarri ebazan. Ango gorak eta ango txaloak! Ori dok, ori, mutil!.

—Erregeak idinarrua, urregorritz beteta, emon eutson.

Gure lau lagun indartsuak, katanarrua, ardinarrua eta idinarrua bizkarrean artuta, pozaren pozez, etxerantza abiatu ziran.

Baina orduan, Galiporniako gizonak, erbestekoek urregorritz guztia irabazi ebela eta, bekatxez erreta, erregearengana joan ziran, gure gizonok lapurrak zirala salatza joan be.

Erregeak sinistu egin eutsen eta mila bat gudari bialdu ebazan gure mutilen atzetik, suiskilu, kanoi eta guzti.

Ainbeste iskiludun, gizon, suiskilu ta kanoikaz, euren aurka etozala ikusita, lau mutilok ikaratu egin ziran. Baina Olagizonek euren lagunai olantxe esan eutsen:

— Ez ikaratu. Geldi egon bertan. Itzi neuregan oilo busti orreek. Nik badakit zer egin!

Eta agoa arriz bete eban, atsgora arnasea artu, birikiak aizez bete eta here paparreko auspoen indar guztiaz PUTZ! egin eban. Alako kanoi indartsurik ez da egundo be ikusi! Arek jaurtiten ebazan danbadak eta bunpadak!.

Gure lagunak, Giartsu. Eiztari. Olagizon eta atxari eusten eutson Indartsu, katanarrua, ardinarrua eta idina rrua urregorritz beteta lepoan artuta, bakotxa bere etxera joan zan.

Andik aurrera aberats eta zoriontsu bizi el ziran.

Ori olan bazan,
sartu daitela kalabazan.

Eta urten daiala

Makatzeko iturrian.

(erri ipuina)

Iniaki MARTIARTU
1996eko irailean

Berbalapikoa

giartsu = indartsu, bulartsu.

arroa = pisu-neurria (11,5 kilo gitxi gorabeera)

ludi = mundu.

eiztari = eizari, eizan (kazan) egiten dauana.

txatxar = makal, utsaren urrengo, ezgauza, kakanarru.

uriburu = uririk nagusia. (Bizkaiko uriburua Bilbo da).

aldarte = umore, gogaldi, aldi.

lasterketa = arineketaldi, zeinek arinago egin neurtuteko txapelketa.

katanarru = diruzorro, zisku, dirua eroateko zorrotxua edo sakela.

legoa = luzera-neurria. (itsasokoak 5.555 m. daukaz, legorrekoak 5.572 m.).

arnasestu = itobear, arnasbear, itoaldi, itomen.

ardinarru = katanarrua baino andiagoa.

zapi = zarpil, zarpazaar, trapu.

erbesteko = beste erri batekoa.

indarketa = indarrak neurtuteko norgeiagoka.

dandarrez = narraz, narrazka, tatarrez.

suiskilu = zizpa, eskopeta.

iskilu = arma.

oilobusti = odolbako, bildurri, koldar.

atsgora = arnasea artukeran.

danbada = dunbots, eztanda, tiro.

bunpada = dunbots, eztanda. tiro.

LUKIA ETA ERROIA (alegia)

Beinola baten, txori andi-andi bat egoan, baltz-baltza, moko luze eta gizagaisoa: Erroia zan.

Esnez egindako gaztai eder bat artu eban, bere mokoan sartu eta zugatz baten tontorreraino adarrik adar igoan eban.

— Au gaztai ona!, esan eban here artean Erroiak. Nik neuk, bakar bakarrik, jango dot guzti aul!

Baina, alako baten, tapatan-tapatan Lukia urreratu jakon, goseak ilda urreratu be. Eta olan esan eutson:

—Egun on Erroi jauna! Polita zara izan, gero! Baina zure abestiak askoz politagoak dira... Pozik baino poza-go entzungo neukez zure abesti eder orreek...!

Erroia, Lukiari entzunda, grauetan asi zan, poz-pozik, benetan! Baina grauetan asi ta batera, braust! mokotik gaztaia jausi jakon eta Lukiak, here ago andia zabalduz, dzaust! gaztai osoa iruntsi eban.

Erroi baltz gizagaisoa, gaztai barik lotu zan!

Irakaspena: Ene irakurleak!

Zenbat barritsu eta guzurti!

Zenbat Luki, Erroi gizagaisoen lepotik bizi diranak!

(Deustuko Ikastolako aldizkaritik, egokitua)

Iniaki MARTIARTU
1996ko zemendian

Berbalapikoa

luki = azeri.

erroi = bele.

moko = txorien agoa.

gizagaiso = gizaxo, koitadu.

tapatan-tapatan = astiro-astiro, txiri-txiri, tipi-tapa.

grauetan egin = karrask egin, karrak egin, erroiak egin dauan zaratea.

-ren lepotik bizi = -ren kontura bizi.

TARTALO

(Euskal ipuin zaarra)

Gorbeia mendiko, Arrabako larran, antxina baten Basajauna bizi ei zan. Aren izena TARTALO.

Tartalo pago tantai, zabal baten antzeko gizon ikaragarria zan. Gorputza bost ardi-narrutan estalduten eban-eta. Enbor erdian idi-narruzko garriko zabala eta eskuetan makil astuna eroaten eban. Bekoki erdian begi bakar andia eukan.

Gorbeia mendian batetik bestera ibili oi zan.

Beinola baten, Gorbeia mendiko artzain bateri Tratalok ardi bat ostu eutson, eta artzaina, bildur barik, basajaunaren atxulora sartu zan. Baina ez eban Tartalo atxulo barruan aurkitu.

Laster agertu zan atxulo aurrean Tartalo bere artalde andiagaz. Iru mila ardi ziran eta, artxoak eta bildotsak zenbatu barik.

Tartalok ardiak eta arkumeak bra-braka atxuloan sartu ebazanean, arpearen agoa arri aundi astun batez itxi eban.

Sua iziotu eban, eta artzaina barruan ikusi ebanean, amorru bizian, orroaka, basa-zezenen antzera, itandu eutson:

— Kontxo, gizontxu, nondik sartu az, bada? Zer galdu dok emen nire atxuloan? Gaur gauean zer jana bajaukoat. Ire aragi bigunak biar jango joadaz.

Eta atxulotik iges ez egiteko, artzainari atzamar txikian eraztun bat jantzi eutson, beti, gau ta egun ixildu barik, gedar egiten ebana:

Emen nago! Emen nago! Emen nago!...

Tartalok esnea egosi eban eta ardi-esne beraz bete-bete egin zanean, ardien artean etzun eta besoak eta anak zabal-zabal ipinita, lozorro astunean lotu zan.

Artzainak, orduan, ixil-ixilik, sugarretan ilenti bat berobero egin, eta bere beso bietako indar guztiaz, lo-arrantzaka egoanari, dzast! begi-begitik sartu eutson.

Itzartu zanean, Tartaloren orroek atxei be dardara eragiten eutseen. Aren aieneak, aren gedarrak eta garrasiak!.

Artzaina arrapatu ba eban, arrapatu, berreun zati egin-go eban!.

Urrengo egunean, eguzkia atx ganetik agertu zanean, Tartalok ardiak, gura ta guraz, larrara atara bear izan eban, bedarra jaten emotera atara be.

Artzainak, ardiekaz naastean, andik urteteko asmoa eukan, baina Tartalo, arritzarra kenduta, atxuloko agoan jarri zan. Artzaina, urtenkeran, zeozelan arrapatuteko asmotan edo.

Artzain bizkorak, orduan, atzamar txikia bost ardi-narrutan biribildu eban, olan eraztunaren gedarrak asagokoak bailiran, Tartaloren belarrietara motel-motel elduten ziran.

Asmaketa zorrotz oneri esker, artzainak basajaunaren esku artetik iges egin aal izan eban.

Artzainak atxulotik iges egin eutsona Tartalok igarri ebanean atzetik arineketan jarraitu eutson. Baina artzainak, bere burua estualdian ikusita, atzamar txikia moztu eta eraztun ta guzti itsasora jaurti eban.

Tartalo ituak, eraztunaren atzetik, itsaso sakonera blaut! egin eban eta Bizkaiko Itsasoan ito egin zan.

(eri ipuina)

Iniaki MARTIARTU
1996ko irailean

Berbalapikoa

larra = landa, zelai.

tantai = anditzar, kankailu.

atxulo = arpe, koba.

artxo = arkume, jaio barri dan ardia.

bildots = arkume, urte bete baino gazteagoa dan ardia.

bra-bra = ardiei deituteko egiten dan ago-zaratea.

arpe = atxulo, koba.

iziotu = biztu.

az = zara (itanoa).

dok = dozu (itanoa).

bajaukoat = badaukat (itanoa).

joadaz = dodaz (itanoa)

loarrantzaka = lozurungaka, lokorronkaka.

ilenti = erdi en-eta dagoan egur zatia.

garrasi = gedar kirrintzikaria, deader kirrinkaria.

bailiran = balitzaz lez.



**Eusko Jaurlaritzaren
Laguntzaz.**

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

EUSKALDUN BARRIENTZAT



MARRAZKI ONETAN, IRUDI BI DAGOZ BARDIÑAK.



Betidanik.

Itzau begiak une batez eta
begiratu zeure inguruari.

Eraikiñak, kaleak, aurtzaroan jolasten
zendueneko lekuak, ikastegia... Ainbat
eta ainbat gauza ez dira leengoak, ez da?
Garaiak aldatu egin dira. Ezin ezetz esan.
Aiekin batera, zuk oraindik atsegin
dozuzan gauza asko be desagertu egin dira.
Urbiltasuna, begikotasuna,
zuzeneko artu-emona... Orain egiozu so
antziñako sukursal orren argazkiari.
Eta konparatu BBK'ren egungo edozein
bulego ta sukursalekin.
Ez dira ain ezbardiñak.
Azkenean, garrantzitsuenak
bere orretan diraelako.
Gauza batzuk oiñarrikoak dira eta on
ondo dakigu BBK'kook.
Garaietan zear aldatu egin gara. Jakiña.
Bahia leengo berberak gara.
Zuri laguntzeko. Eta zure alegiñaz
eta geurez onurak itzultzeko.



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa
EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK